

# Unitate didaktiko digitalak: oinarriak, diseinua eta ebaluazioa



14.Urt - 21.Ots

Kod. @2-19

**Edizioa**

2019

**Jaduerara mota**

Online ikastaroa

**Data**

14.Urt - 21.Ots

**Hizkuntzak**

Euskara

**Balio akademikoa**

30 ordu

**ZUZENDARITZA**

**Amaia Arroyo Sagasta**, IKT on Hezkuntza-aholkularitza, Arduradun pedagogikoa

**Antolakuntza Batzordea**

Fundación **BBVA**



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN

## **Azalpena**

**Ikastaro honek Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Saileko eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Baliozkotzea izango du (1868170028 Kodea) unibertsitateaz kanpoko irakasleentzat.**

Konpetentzia digitala asko entzuten ari den arloa da gaur egun; baina, askotan, ikuspegi instrumentala oinarri hartuta ulertzen dugu irakasleok. Konpetentzia honen ikuspegi pedagogikoa eta holistikoa oinarri hartuta, unitate didaktikoen diseinuan aritzea da ikastaro honen helburua. Horretarako gakoak landuko ditugu: gako didaktikoak, diseinua egiteko; gako tekno-pedagogikoak, tresna digitalen erabilera pedagogikoari buruz hausnartzeko; eta ebaluazio-gakoak, egindako lanari eta gure jardunari buruzko ikuspegi kritikoa garatu eta ikasten jarraitzeko.

-30 ordu 4 astetan zehar (astero 7-8 orduko dedikazioa)

-Hasiera: 2018/01/14 Bukaera: 2018/02/21

-Tarifa bakarra: 80 euro

-Hizkuntza ofiziala: euskara

## **Helburuak**

Konpetentzia digitalak ikas- eta irakas-prozesuetn duen garrantziaz jabetzea.

Unitate didaktiko digital bat zer den ulertzea.

Unitate didaktiko digitalak diseinatzeko eta ebaluatzeko autonomia garatzea.

Lankidetzan aritzea eta ikastea baloratzea.

## **Programa**

**2019-01-15 / 2019-01-22**

### **Oinarri tekno-pedagogikoak eta diseinua**

- Oinarri tekno-pedagogikoak
- Konpetentzia digitala
- Unitate didaktiko digitalen diseinua

**2019-01-22 / 2019-01-29**

### **Konpetentzia digitalaren arabera sailkatutako erreferentziazko tresnak**

- Informazioa eta informazio-alfabetatzea lantzeko tresnak
- Komunikazioa eta kolaborazioa lantzeko tresnak
- Eduki digitala sortzeko tresnak

**2019-01-29 / 2019-02-05**

### **Talde-lana: unitate didaktiko digitalen diseinua**

- Taldeak egin
- Unitate didaktiko digitalak diseinatzea

**2019-02-05 / 2019-02-12**

### **Talde-lana: unitate didaktiko digitalen materiala**

Taldeka, egindako unitate didaktiko digitalen material digitala prestatu.

**2019-02-12 / 2019-02-19**

### **Unitate didaktiko digitalen ebaluazioa**

- Taldeka, egindako unitate didaktiko digitala aurkezteko bideo bat egin.
- Ebaluazioa, errubrikan oinarrituta: autoebaluazioa eta koebaluazioa.

## Zuzendariak



### **Amaia Arroyo Sagasta**

IKT on Hezkuntza-aholkularitza, Arduradun pedagogikoa  
(Urretxu)

---

Hezkuntza Bereziko Magisteritzan diplomatua (2004), IKTak formazioan aplikatuta masterduna (2006), Komunikazio eta Hezkuntza Sarean masterduna (2012), eta Komunikazioan eta Hezkuntzan doktorea (2017): Konpetentzia Digitala, Norbere Ikas-Alorra (NIA) eta Erakundearen Ikas-Alorra (EIA) dira bere ikerlerroak. Hainbat zereginetan ibili izan da: irakasle, aholkulari, editore, ikasmaterial-egile... baina teknologia digitalaren ikuspegi pedagogikoa da bere interesgunea, eta zeregin guztietan ardatz horri eusten saiatzen da. Gaur egun, UEUk eta EHUK eskaintzen duten HEZikt graduondokoan irakaslea eta koordinatzailea da, baita arduradun pedagogikoa berak sustatutako IKT on hezkuntza-aholkularitzan ere. horrez gain, beste unibertsitate batzuetan irakasle aritzen da: UNIRen, Lehen Hezkuntzako Graduan, eta Antonio Nebrija Unibertsitatean, Irakasle izateko masterrean eta IKT eta ikaskuntza digitala masterrean.

## Irakasleak



**Josune Aranguren Mujika**

---



**Amaia Arroyo Sagasta**

IKT on Hezkuntza-aholkularitza, Arduradun pedagogikoa  
(Urretxu)

---

Hezkuntza Bereziko Magisteritzan diplomatua (2004), IKTak formazioan aplikatuta masterduna (2006), Komunikazio eta Hezkuntza Sarean masterduna (2012), eta Komunikazioan eta Hezkuntzan doktorea (2017): Konpetentzia Digitala, Norbere Ikas-Alorra (NIA) eta Erakundearen Ikas-Alorra (EIA) dira bere ikerlerroak. Hainbat zereginetan ibili izan da: irakasle, aholkulari, editore, ikasmaterial-egile... baina teknologia digitalaren ikuspegi pedagogikoa da bere interesgunea, eta zeregin guztietan ardatz horri eusten saiatzen da. Gaur egun, UEUk eta EHUK eskaintzen duten HEZikt graduondokoan irakaslea eta koordinatzailea da, baita arduradun pedagogikoa berak sustatutako IKT on hezkuntza-aholkularitzan ere. horrez gain, beste unibertsitate batzuetan irakasle aritzen da: UNIREn, Lehen Hezkuntzako Graduan, eta Antonio Nebrija Unibertsitatean, Irakasle izateko masterrean eta IKT eta ikaskuntza digitala masterrean.

## Matrikula prezioak

**MATRIKULA**

**2019-01-16 ARTE**

[Tarifa bakarra](#)

80,00 EUR